

THE RAIN PEOPLE / LLUEVE SOBRE MI CORAZÓN

Aterkirik gabeko pertsonak

ALBERTO BARANDIARAN

Badira filmak non gidoia gauza guztien gainetik nabarmentzen den. Badira filmak non distira aktoreen lanak zabaltzen duen. Badira filmak non efektu bereziak edo argiaren erabilera edo eszenatokiaren aukeraketa nagusitzen diren. Eta badira filmak non giroak bustitzen duen dena, dela argi malenkoniatsua dela euri ikusezina dela laino ezkutua edo gau itxia. Busti, baita pertsonaia eta gidoia ere. *The Rain People* (1969) horietako bat da.

Eta beharbada zailena horixe da: giro hori esplikatzea, hitzetan jartzea.

Francis Ford Coppolaren izena aitatu eta film mitikoak etortzen dira akordura, bat baino gehiago eta errenkadan. XX. mendeko zinemaren historian tokia hartuta duten izenburu handiak atera dira gizon honen eskutik, baita huts egindako lan batzuk ere. Film hau ez dago horien artean. Lan goiztiar honetan, *The Godfather* erraldoiaren aurreko lana hain zuzen ere, ez da izen handiko filma eta, hala ere, maisu handi baten keinuak topatuko ditu

zinemazaleak fotogramen artean. Eta zinemazaleari harrigarria egingo zaio esku berak gidatu izana bi lan horien atzean dagoen kamera, hain baitira desberdinak.

The Rain People, ezezagun samarra izan arren, berreskuratzea merezi duen pelikula da. Bikain kontatuta dago istorioa, eta luze irauten duen sentsazio mingotsa uzten du aho sapaian. Itxuraz jende sendo, indartsu eta pertsonalitate handikoak izan arren, munduan tokirik topatzen ez dituzten pertsona zaurgarriak erakusten dizkigu. Eta mingotsa da, bilaketa etengabe baten kronika delako, eta bilaketak ez duelako emaitzarik ematen.

“Norantz zoaz?” galdetzen dio polizia motordunak neska protagonista-ri, abiadura handia dela eta isuna jarri ordezk kafea hartzera gonbidatzen duenean. “Mendebalderantz. Kaliforniara”. “Eta zergatik Kalifornia?”. “Harantzago ez dagoelako ezer”.

Esaldi motz eta bat-batekoekin, protagonisten pertsonalitate konplexua marrazten du Coppolak, inolako artificio edo joko estilistikorik gabe, ez baitago ezer sobera. Dena neur-



tuta dago giro hori ezerk hauts ez dezan. Argia bera du pelikula osoak: argi lauso eta apala, argiantza. Eta pertsonaiek ere badute, aura baten gisa, argi horretatik zerbait, halako malenkonia bat, halako uzte bitala, halako ezaxolakeria gertatzen zaientzaren aurrean.

Atsekabetasun horren erdian, emakumezko protagonistaren in-

darrak pantaila ia osoa hartzen du. Bigarren mailako errepide baten bazterrean aurkitzen dituen gizonen patuaren gidari ikusten du bere burua, nahi gabe, euren etorkizuna baldintza dezakeen egoceren lemazain. Harik eta sabelean daraman eta nahi ez duen umearen ordezk bilakatzen diren arte. Errepide bazterreko errealitate horrek,

bere protagonista sasiko guztiekin, erakusten diolako emakume batek, bakarrik eta barnealdeko errepide huts eta izenik gabeko baten erdian, ez duela ihesbiderik. Beti edukiko duela geroratu ezingo duen ardura- ren bat. Ez dela libre izango. Giroak busti egingo duela etengabe, aterkirik gabeko pertsonak urak bustitzen dituen bezala.

PELIKULETAKO EUSKADI BAT UNA EUSKADI DE PELÍCULA

Deskubritu itzazu zinemaren bidez Euskadiko ezkutuko ibilbideak.
Descubre las rutas secretas de Euskadi en historias de cine.

Bisitatu gure webgunea / Visita nuestra web:
turismo.euskadi.eus

